



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

**EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO DEFENTSA
ERAKUNDEAK ERAKUNDE HORRI BURUZ IREKI DEN
HAUSNARKETARAKO GUNERA EGINDAKO EKARPENAK**

Vitoria-Gasteiz, 2009/11/19



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

HITZAURREA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea, sexu-arrazoiengatik diskriminazio-egoeren aurrean herritarrak defendatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadin sustatzeko organoa da. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen sorrera Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen IV. tituluan erregulatzen da; bertan ezarritakoaren arabera, Administrazioarekiko erabateko autonomia izango du bere eginkizunak betetzeko, eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikita egongo da, haren egitura hierarkikoan txertatu gabe.

2009ko ekainaren 24an, erakunde horren konfigurazioa eta eraginkortasuna jendaurrean zalantzan jarri zituen Eusko Jaurilaritzak Eusko Legebiltzarreko *Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordearen* aurrean, eta hori dela-eta, ezinbestean hausnartu behar dugu funtsezko honako hiru arazo hauei buruz: indartu beharreko berme-eredua zein den, Europako Zuzentzauek mota horretako erakundeetarako defendatzen duten independentzia nola gorde, eta horrek nolako araudi-garapena eskatzen duen.

Berdintasunerako defendatzaileak Eusko Legebiltzarreko *Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordean* egindako agerraldian (2009ko urriaren 26a), zehazki, 2008ari zegokion *Urteko Txostenaren eta Hitzarmen Kolektiboetako Genero-berdintasunari buruzko Ezohiko Txostenaren* aurkezpenean zera galdetu zitzaion, bere ustez, erakunde horri esleitutako betebeharrak egokitutako ereduak nolako beharko lukeen, hain zuzen ere. Beste gune bat behar zuela balioetsi zenez, galdera horri erantzunik ez zitzaion eman, eta horregatik, txosten honen bitartez eman nahi zaio erantzuna.

Eusko Legebiltzarreko *Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordeko kideei* zuzendutako dokumentu honen jomuga Defentsa Erakundearen ereduari buruzko arazoari erantzuna ematea da, eta baita erakunde horri eta horren betebeharrak buruzko hausnarketa gauzatzeko eta erabaki egokia hartzen laguntzea ere. Herritarrak diskriminazio-egoeretan defendatzearen alorrean Erkidegoko erregulazioari buruzko informazio garrantzitsua aurkeztuko dugu txosten honetan, eta baita hura gure ordenamendu juridikora, Europako esparruan hark izan beharreko garapenera, eta horren gaineko txosten espezifiko garrantzitsuetara egokitzeari buruzkoa ere.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Txosten honen amaieran, Defentsa Erakundea sortu zenetik igaro den ia hiru urte eta erdiko denbora-tartean (2006ko ekaina-2009ko azaroa) herritarrek erakunde horretan aurkeztutako eskabideen kopuruak izandako bilakaeraren zertzeladak emango ditugu, eta indartu beharreko Berdintasunerako eta Diskriminazioaren aurkako Defentsa Erakundearen eredia azalduko dugu.

1. ERKIDEGOKO ONDAREA ETA HURA ESTATUKO ETA ERKIDEGOKO LEGEDIRA EGOKITZEA

- **EBko kideak diren Estatueterako lotesleak diren zuzentarauak**

Europako erakundeak emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren helburua lortzeko lanean aritu dira mende erdi batez. Europako Esparru Ekonomikoa (EEE) sortu zuten sei Estatuak Erroman 1957an sinatutako Europako Erkidegoko Itunak emakumeek eta gizonek “lan berbera egiteagatik soldata berbera” izateko eskubidea dutela ezarri zuen.

Gaur egun, genero-berdintasunaren alorreko erregulazioa Europar Batasunak aukera-berdintasunei dagokienez dituen politiken zutabe nagusia dugu, eta gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren erregulazioan¹ Europako 13 Zuzentarau onartu dira. Adierazitako Zuzentarau horiek EBko Kide diren Estatueterako lotesleak dira, eta legedi nazionaletan txertatu behar dituzte. Gai ugari erregulatzen dituzte, hala nola, enplegua lortzea, lan-baldintzak, ordainsariak, edota Gizarte Segurantzarekin, autoenpleguarekin eta haurdunaldiari eta amatasunari lotutako edukiak. Tresna horiek guztiek oinarri sendoa osatzen dute berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioa betetzen dela bermatzeko.

- **Tratu-berdintasunerako erakundeak derrigorrean sortzeko betebeharra ezartzen duten zuzentarauak**

Tratu-berdintasunaren eta arraza- edo etnia-jatorriagatiko eta sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik ezaren printzipioa babesteko ardura duten erakunde independenteak sortzea erregulatzen duten –antzeko baldintzetan– hiru Zuzentarau daude, zehazki, honako hauek:



DEFENTSORIA

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres*

- Pertsonen arraza edota etnia-jatorria kontuan hartu gabe pertsonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa ezartzeari buruzko 2000/43/EE Zuzentarauaren 13. artikulua.
- Enplegua lortzeari, prestakuntzari eta sustapen profesionalei eta lan-baldintzei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunen eta tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko 2002/73/EE Zuzentarauaren 8. bis artikulua. Zuzentaru hori indargabetu egin zen 2009ko abuztuaren 15ean 2006/54/EE Zuzentaru indarrean hasi zenean. Horren 20. artikuluan ezartzen dira erakunde independenteak sortzeari buruzko gaiak.
- Ondasunak eta zerbitzuak eta horien hornidura lortzean gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko 2004/113/EE Zuzentarauaren 12. artikuluan ere bai.

Adierazitako Zuzentaru horiek honako hau ezartzen dute:

Estatu Kideek erakunde bat edo gehiago izendatuko dituzte, erakunde horiek pertsona guztien arteko berdintasuna (sexu-arrazoiengatikoko diskriminaziorik gabe) sustatzeko, aztertzeko, kontrolatzeko eta babesteko ardura izan dezaten, eta horretaz gain, horretarako behar diren xedapenak ezarriko dituzte.

Adierazitako erakunde horiek ondorengo eskumenak –besteak beste– izan ditzaten bermatzeko ardura izango dute Estatu Kideek: diskriminazioa jasan dutenei laguntza independentea ematea diskriminazioagatikoko prozedura bat hasten dutenean, diskriminazioari buruzko azterketa independenteak egitea, txosten independenteak argitaratzea eta gomendioak ematea diskriminazio horrekin zerikusia duen edozein gairi buruz.

2006/54/EE Zuzentaruak, bestalde, dagoen informazioa Europako erakunde baliokideekin elkartrukatzeko agindua eransten du (aurreko Zuzentaruarekin alderatuz).

Arestian aipatutako Zuzentaru 2009ko abuztuaren 15ean indarrean hasia aurreikusteko, Europako Parlamentuak 2002/73/EE Zuzentaru egokitzeari eta aplikatzeari buruzko 2009ko



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

urtarrilaren 15eko Ebazpena eman zuen. Europako parlamentuak EBko Estatu Kideei jakinarazitako gaiak nabarmentzea interesgarria da; hona hemen gai horiek:

- *Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunerako eta aukera-berdintasunerako erakundeetarako gaitasunak garatzeko eta baliabide egokiak bermatzeko estutzen ditu Estatu Kideak (2002/73/EE Zuzentarauan aurreikusten dira horiek), eta Zuzentaruak erakunde horien independentzia bermatzeko eskatzen duela gogorarazten du (13. puntua).*
- *2002/73/EE Zuzentaruaren 8. bis artikulua aplikatzeko ikuspegi guztiak egiaztatzen ditu (Estatu Kideek elkarrekin lan egin behar dutela eta jardunbide egokiak elkartrukatu behar dituztela nabarmentzen du artikulua horrek); Batzordearen genero-berdintasunerako erakunde nazionalen Sarea nahiz EQUINET tresna garrantzitsuak direla adierazten du, elkarlan hori hobetzeari eta emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren alorrean Erkidegoko Zuzentaruak modu erregularrean aplikatzea dadin sustatzeari dagokienez (14. puntua).*
- *Batzordeak 2009an tratu-berdintasunerako erakundeen antolakuntzari buruzko azterlan bat egiteko duen asmoa goraiatzen du; tratu-berdintasunerako erakundeek eskainitako zerbitzuei buruz EBko herritarrek duten ezagutza-maila neurtzeko eta iritzi publikoak erakunde horiek hobeki ezagut ditzan lortzeko informazio-kanpainei hasiera emateko eskatzen die Batzordeari eta Estatu Kideei (15. puntua).*
- *2002/73/EE Zuzentarauan hitzartutako eskubideei buruz emakumeek duten ezagutza-maila eskasa dela ohartarazten du, genero-berdintasunaren alorrean aurkeztutako errekurtsoen eta erreklamazioen kopuru txikietatik ondorioztatzen den bezala; Estatu Kideei, sindikatuak, enplegatzaileei eta gobernuz kanpoko erakundeak emakumeak informazioa emateko ahaleginak sendotzeko eskatzen die, 2005az geroztik ordenamendu juridiko nazionalak diskriminazioaren biktimen eskueran jarritako aukeren berri izan dezaten (16. puntua).*
- *Diskriminazioaren biktimen aldeko babes judizialarengan dagoen konfiantza txikiagatik kexatzen da; Estatu Kideei eskatzen die emandako laguntza independentea izan dadin eta eskuragarri egon dadin bermatzeko, diskriminazioaren biktimetarako bermeak*



DEFENTSORIA

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres*

indartzeko, eta 2002/73/EE Zuzentarauaren babespeko pertsona bat defendatzen duten –edo haren lekukotza ematen duten– pertsonen babes judiziala ziurtatzeko (17. puntua).

Bestalde, 2009ko uztailaren 29an, Europako Batzordeak Europako Kontseilurako eta Parlamenturako egindako txostenak –adierazitako Zuzentarau hori aplikatzeari buruzkoak– honako hau nabarmentzen du berdintasun-erakundeei buruzko idatz-zatian:

- *Zenbait Estatu Kidetan, duela denbora askoz geroztik hona daude horrelako erakundeak, Defentsa Erakunde itxuran edo Batzorde itxuran. Alabaina, Estatu kide gehienetan, Zuzentaraua onartu izanaren emaitza gisa ezarri dira horrelako erakundeak. Berdintasun Erakundeak askotarikoak dira Europar Batasun osoan, eskumenei, funtzionamenduari antolakuntzari eta baliabide ekonomikoei eta finantzarioei dagokienez.*
- (...)
- *Batzordearen ikuspegitik, berdintasun-erakundeek lan egin ahal izateko, ezinbestean behar dute nolabaiteko independentzia, antolakuntzari eta giza baliabideei eta baliabide finantzarioei dagokienez.*

Horri dagokionez, Batzordeak jakinarazten du erakunde horien ezaugarriei buruzko azterlan bat egitea erabaki duela, zehazki, horien independentziari, eskuragarritasunari, ikuspenari eta jardunei dagokienez.

Azkenik, gaur egun Zuzentarau berri bat egiten ari direla jakinarazi behar dugu, Europako Kontseiluan proposatu den bezala; Zuzentarau berri horrek *pertsonen tratu-berdintasunari (horien erlijioa, sinesmenak, desgaitasuna, adina, orientazio sexuala edo generoa alde batera utzita)* lotutako gaiak erregulatuko ditu. Zuzentarau berri horren zirriborroan honako hauek jasotzen dira:

Estatu Kideek pertsona guztien tratu-berdintasuna (horien erlijioa, sinesmenak, desgaitasuna, adina, orientazio sexuala edo generoa alde batera utzita) sustatzeko erakunde bat edo gehiago izendatuko ditu. Nazio-mailan giza eskubideak defendatzeko edo banako eskubideak babesteko (baita Erkidegoko beste arauak babestutako eskubideak ere, 2000/43/EE eta 2004/113/EE Zuzentaraueetan jasotakoak barne) ardura duten agentzien barruan egon ahal izango dira adierazitako Erakunde horiek.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

- **Espainiako ordenamendu juridikora egokitzea**

Emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunari eta sexu-arrazoiengatiko diskriminaziorik ezari buruzko Europako legedia honako hauen bitartez (besteak beste) egokitzen da Espainiako ordenamendu juridikora: Gobernuak lantzen dituen arauzko xedapenetan generoaren araberako eraginaren balioespena sartzeko neurriei buruzko urriaren 13ko 30/2003 Legea, langileen familia-bizitza eta lan-bizitza bateragarri egitea sustatzeko azaroaren 5eko 39/1999 Legea, eta azkenik, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa.

3/2007 Lege Organikoak tratu-berdintasunari buruzko bi zuzentarau txertatzen ditu Espainiako ordenamenduan, 2002/73/EE Zuzentaraua (...) eta 2004/113/EE Zuzentaraua (...) – aitzinsolasean adierazten den bezala–, eta berdintasunari buruzko funtsezko kontzeptu eta kategoria juridikoak zehazten ditu, esate baterako, zuzeneko edo zeharkako diskriminazioa, sexu-jazarpenari eta sexu-arrazoiengatiko jazarpena, edota ekintza positiboak. Orobat, diskriminazio-jokabideen ondorio juridikoak zehazten ditu, eta berdintasunerako eskubidearen babes judiziala indartzeko prozesu-bermeak txertatzen ditu.

Horrekiko koherentziari eutsiz, hainbat lege-testu ere aldatzen ditu, esate baterako, honako hauek: Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko Lege Organikoa, Botere Judizialaren Lege Organikoa, Prozedura Zibilaren Legea, Langileen Estatutuaren Legea, Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea, Lan Prozedurari buruzko Legea, Lan Arloko Arau-hausteei eta Zehapenei buruzko Legea, Enpleguari buruzko Legea, Gizarte Segurantzari buruzko Lege Orokorra, eta Emakumearen Erakundea Sortzeko Legea, besteak beste.

3/2007 Lege Organikoaren 25. xedapen gehigarriak Emakumearen Erakundea Espainiako Erreinuaren eskumena duen erakunde gisa hautatzen du, 2002/73/EE Zuzentarauaren 8. bis artikuluan eta 2004/113/EE Zuzentarauaren 12. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

Horrela, Emakumearen Erakundea sortzeko 16/1983 Legearen aldaketak 2. artikuluko bis bat eransten dio, honako hau jasotzen duena: *Aurreko artikuluan eta indarreko gainerako arauetan esleitutakoez gain, Emakumearen Erakundeak honako eginkizun hauek gauzatuko ditu independentziaz:*



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

- a) *Diskriminazioaren biktimei diskriminazioagatiko erreklamazioak izapidetzeko laguntza ematea;*
- b) *diskriminazioari buruzko azterlanak egitea;*
- c) *txostenak argitaratzea eta gomendioak ematea diskriminazioarekin zerikusia duen edozein gairi buruz.*

Estatuko Administrazio Orokorraren eta Autonomia Erkidegoetako Administrazioen arteko harremanari dagokionez, horiek alor horretan dituzten eskumenak kontuan hartuz, 3/2007 Lege Organikoaren 21.1 artikulua honako hau ezartzen du: *emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eskubidea dagozkien eskumenetan, eta zehazki, gauzatutako plangintza-jardunetan txertatzeko lankidetzan arituko dira. Emakumearen Sektore Konferentziaren baitan baterako jardun-planak eta -programak gauzatu ahal izango dira helburu horretarako.*

- **Erkidegoko agindua EAEko erregulaziora egokitzea**

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen zioen VII. adierazpenean (28.-30. orrialdeak) jasotzen da tratu-berdintasuna sustatzeko erakundeak ezinbestean sortzeko betebeharra ezartzen duen Erkidegoko agindua gure Autonomia Erkidegora egokitzeko prozesua. Horren arabera, honako hau ezartzen du hitzez hitz:

Adierazitako Legearen IV. tituluak Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortzen eta erregulatzen du; independentea den organo horren helburua honako hau da: EAEn tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen dela zaintzea eta herritarrak defendatzea sektore pribatuan sexu-arrazoiarengatik gerta litezkeen diskriminazioko egoera edo praktiketatik. Horrela, Arartekoaren erakundeak alor horretan (EAEko sektore publikoari dagokionez) egiten duen lanaren osagarria da, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioaren defentsa sustatzen duten erakunde independenteak egoteari buruzko Europako mandatuei erantzuten zaie; erakunde horiek, besteak beste, honako helburu hauek dituzte: biktimei sexu-arrazoiengatik diskriminazioagatiko erreklamazioak izapidetzeko laguntza ematea, horri buruzko azterlan eta txosten independenteak egitea, eta diskriminazio horrekin zerikusia duen edozein gairi buruzko gomendioak ematea.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Eta, espezifikoki, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Defentsa Erakundearen Antolakuntza eta Funtzionamenduaren Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 119/2006 Dekretuak honako hau ezartzen du:

... 2002/73/EE Zuzentarauaren 8. bis artikuluan eta 2004/113/EE Zuzentarauaren 12. artikuluan aurreikusitakoa betetzeko, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu eta konfiguratu du. Organo independente horren xedea Euskal Autonomia Erkidegoan sektore pribatuan sexuagatik gertatzen diren bazterketako egoera edo jardunbideetan tratua berdintasunaren abiaburua bete dadila zaintzea da.

Horrela, Berdintasunerako Defentsa Erakundea organo publiko gisa sortu zen; Espainiako estatuan eta hegoaldeko Europar aitzindaria izan zen, eta Eusko Jaurlaritzak sortu zuen, Eusko Legebiltzarreko 4/2005 Legearen IV. titulua betez; horren bitartez Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitzen zaio, Administrazioaren egitura hierarkikoan txertatu gabe.

Defentsa Erakundearen funtzionamenduaren independentziari eusteko, Administrazioaren egitura hierarkikoan txertatzen ez dela ezartzen da 4/2005 Legearen 63.2 artikuluan, eta Berdintasunerako Defentsa Erakundearen titularrak izan beharreko hainbat ezaugarri eta bete beharreko hainbat eginbehar xehatzen dira 67. artikuluan. Horien artean, honako hauek ditugu: herritarrek aukeratu beharreko agintaldiekin bateraezina da titulartasun hori, eta baita hautespen libreko edozein kargu politikorekin, alderdi politiko, sindikatu edo enpresa-erakunde bateko kide izatearekin eta abarrekin ere. Halaber, Europako legediak eskatutako independentzia hori nabarmentzeko, titularraren izendapenaren iraupena 5 urtekoa izango dela ezartzen du, eta horrela, legegintzaldiaren iraupenetik bereizten du, duten independentzia nabarmendu nahi den kasuetan eskubideen bermerako beste hainbat figurarekin egiten den bezala, esaterako, Herriaren Defentsarako Erakundearen titulartasunaren kasuan.

2. ESKANDINAVIAKO HERRIALDEETAN ETA LITUANIAN GENERO DEFENTSARAKO ERAKUNDEEK IZANDAKO IBILBIDEA

EAE-n Berdintasunerako Defentsa Erakundea abian jartzeak hainbat oztopo izan ditu, besteak beste, Estatuko beste Autonomia Erkidegoetan antzeko erreferentziarik ez egotea; horrela, ongizate sozial eta demokratikoaren eta iraunkortasunaren erreferentziatzko garapena zuten



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

beste hainbat herrialdetara jo zen; herrialde horiek genero-berdintasunaren alorrean lehenak dira munduan, munduko genero-aldeari buruz Munduko Ekonomia Foroak egindako eta argitaratutako urtean behingo txostenek adierazten dutenez. 130 herrialde aztertu ondoren *The Global Gender Gap 2008*ⁱⁱ txostenak jasotakoaren arabera, Norvegiak, Finlandiak, Suediak eta Islandiak zituzten lehenengo 4 postuak genero-aldearen murriztapenean, hurrenez hurren.

Norvegia, Suedia eta Islandiaren esperientzien arrazoa jakiteko, kontuan hartu behar da herrialde horiek emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko eta emakumeak eta gizonak sexu-arrazoiengatiko diskriminazioko kasuetan babesteko erakundeei buruzko legediak 30 urteko ibilbidea duela; horretaz gain, Finlandiak eta Lituaniak esperientzia horri jarraitu diote, eta horrek Europar Batasuneko gainerako herrialdeentzako erreferente gisa balio du.

Estatu horien administrazio-egituran berdintasun-politikak sustatzeko ministerio-departamentuak eta Berdintasunerako Defentsa Erakundeak batera existitzen dira; Defentsa Erakundearen funtzionamendua ez dago egitura hierarkikoaren barruan, eta beraz, horien esku-hartzeek “independentziari” eusten diote.

Azken urteotan, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorreko Europako Zuzentarau lotesleak onartzearekin batera (2000/43/EE Zuzentaraua, 2002/73/EE Zuzentaraua, 2004/113/EE Zuzentaraua eta 2006/54/EE Zuzentaraua), Norvegiako, Suediako eta Lituaniako Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundeek (Finlandia hori eztabaidatzen ari da) diskriminazioaren aurka borrokatzeko alorrean espezializazio-prozesu bat garatu dute, genero-arrazoiengatiko kasuak desgaitasunarekin, jatorri edo etniarekin, adinarekin, erlijioarekin eta orientazio sexualarekin bateratuz edo horietara zabalduz.

Norvegiakoⁱⁱⁱ politiketan 40ko hamarkadan hasi zen genero-berdintasunaren ikuspegia, LANErekiko lankidetzan soldatei buruz egindako azterlan batekin, eta 1959an, “balio berdineko lanerako soldata berdinarekin” ideiarekin buruzko 100. konbentzioak berretsi zuen. Urte horretan bertan, Norvegiak Soldata Berdintasunerako Kontseilua sortu zuen (soldata-aldea oso erraz identifikatzen zen 60ko hamarkadan, gaur egun ere badago alde hori, baina askoz ere zailagoa da atzematen). Kontseilu horren ordez Estatusean Berdintasunerako Kontseilua ezarri zen 1972an. Kontseilu horren aginteak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna biltzen du gizartearen arlo guztietan.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

70eko hamarkada “*berdintasunaren hamarkada*” izan zen Norvegian, eta ikerketa, feminismoa, emakumeen laneratzea eta goi-mailako hezkuntza asko garatu ziren; horretaz gain, haur-hezkuntzarako baliabideak bultzatu ziren.

1978an, Norvegiako Parlamentuak Genero Berdintasunari buruzko Legea onartu zuen, eta 1979an Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundea (ezaugarri horiek dituen munduko lehen agentzia publikoa) sortu zuen, baita Gora jotzeko Auzitegia ere. 2006an, Genero Berdintasunari buruzko Legea aldatu zenean, Berdintasunerako Defentsa Erakunde horren eginkizunak areagotu ziren. Horrela, sexu-arrazoiengatik egoerez gain, etnia-jatorriagatik, orientazio sexualagatik, erlijioagatik, adimen-desgaitasunagatik eta adinagatik gertatutako eskabideei ere arreta ematen hasi zitzairen.

Gaur egun, Berdintasunerako estatuko mekanismoak *Berdintasunerako Parlamentuko Batzordeak*, *Haur eta Berdintasunerako Ministerioak* (ministroa berriz izendatu dute 2005ean eta lehenengo aldiz ikusi da Berdintasuna Ministerioaren izenean) eta *Berdintasunerako Estatuko Idazkaritzaren Batzordeak* biltzen dituzte. Berdintasuna sustatzeko betebeharrak ministerio guztiei eragiten die, baita 430 udalei eta 19 probintzietan ere. Ofizialki, Norvegia osoak du Berdintasuna sustatzeko Lege-betebeharra.

Norvegiako Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Defentsa Erakundea administrazio publikoaren agentzia independentea da, Haur eta Gizarte Gaietako Ministerioari atxikita dagoena, eta horrekiko daukan mendekotasun bakarra aurrekontu-mailakoa da. Euskarazko “Defentsa Erakundea” eta ingelesezko “*ombud*” norvegiarazko “*ombudet*” terminotik datoz (norvegiarazko kontzeptu zahar bat), eta banako eskubideen bozeramaile eta herritarrentzako prozesu judizialen alternatiba eskuragarri eta merke izateko eginkizuna ematen dio haren filosofiak. Erakunde horretako titularra Erregeak izendatzen du lau urteko aldirako eta ez du inolako argibiderik jasotzen Ministerioaren aldetik. Tratu-berdintasunean eta diskriminazioaren aurkako borrokan espezializatuta dagoen erakundea da, eta jardun-eremuak sektore publikoa nahiz sektore pribatua hartzen ditu.

Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Defentsa Erakundearen egungo konfigurazioak Berdintasunari buruzko 2006ko Legeari erantzuten dio. Lege hori onartu zenean, aurretik zeuden beste 3 Ombud txertatu ziren Defentsa Erakunde horretan, eta horrek etniagatik, orientazio sexualagatik eta desgaitasunagatik diskriminazioaren aurkako lana genero-berdintasunaren alorrean ia 30 urtez garatutako lan-tresnez hornitu zuen. Nolanahi ere,



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

kasuistika gehienek generoari buruzko gaiei egiten diete erreferentzia oraindik (2007an 1.000 eskabide ingururi erantzun zitzairen, eta horien artetik % 50 baino gehiago genero-berdintasunarekin lotutako gaiei buruzkoak ziren).

Administrazio Publikoaren gaietarako *Legebiltzarraren Ordezkariek* Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Defentsa Erakunde horretara bideratzen ditu Ordezkariaren bulegoetara iristen diren gai batzuk, hala nola, sexu-, etnia-, hizkuntza-, adin-, eta erlijio-arrazoiengatiko edo orientazio sexualagatiko diskriminazio-kasuei buruzkoak.

Parlamentuari atxikitako Defentsa Erakundeaz gain, Haurtzaroan eta Kontsumoan espezializatutako beste Defentsa Erakundeak ere badaude, horiek ere Haurtzaro eta Berdintasun Ministerioari atxikiak. Defentsa Erakunde horien helburua doako aholkularitza eta laguntza juridikoa ematea da, Justizia Auzitegietara jo beharrik gabe arazoak ebaztea ahalbidetuz.

Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Defentsa Erakundearen egitura instituzionala *Gora Jotzeko Auzitegiari* atxikita dago. Organo horri azaltzen zaizkio desadostasunak edo Defentsa Erakundeak emandako gomendioen ez-betetzeak, eta zehatzeko ahalmena du. Era berean, Erabiltzaileen Batzordeari atxikita dago. Diskriminazio-gaietan profesional espezialistak, erabiltzaileak eta herrialde osoko intereseko taldeak biltzen dituen herritarren batzordea da, erreferentziarako talde gisa jarduten du eta Legebiltzarrak izendatzen du; horretaz gain, urtean bi bilera egiten ditu Parlamentuarekin informazioa emateko eta kontsulta egiteko.

Defentsa Erakunde horri honako eginkizun nagusi hauek agintzen zaizkio: gomendioak ematea, orientabideak ematea, berdintasuna sustatzea enpleguan eta berdintasuna sustatzea etxebizitza lortzeari dagokionez. Berdintasunaren sustapena kontsultei erantzunez, aholkuak emanaz eta jardunbide egokiak hedatuz gauzatzen da, baita dokumentazioaren eta eztabaidaren bitartez ere. Defentsa Erakunde horren eskumenak tratu-berdintasuna eta genero-, etnia-, erlijio- eta adin-arrazoiengatiko, orientazio sexualagatiko edo desgaitasun fisikoagatiko diskriminaziorik ezari buruzko lege batzuk erregulatzen dituzte.

- Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Defentsa Erakundearen Legea (2006ko urtarrila)
- Etnia-jatorriagatiko diskriminazioaren aurkako Legea.
- Genero-berdintasunari buruzko Legea.



DEFENTSORIA

*Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres*

- Laneko arriskuen prebentziorako Legearen 13. atala (orientazio sexuala, adimen-desgaitasuna eta adina).
- Etxebizitzari buruzko legediak jasotako xedapenak, diskriminazioaren aurkakoak.

Nazioarteko erantzukizunei dagokienez, Norvegiako legediak eta bere praktikek Nazio Batuetako konbentzioetan, zehazki, emakumearen aurkako diskriminazio-modu guztiak desagerrarazteko Konbentzioran (CEDAW) eta arrazagatiko diskriminazioa desagerrarazteko Konbentzioran, ezarritako aginduak betetzen ote dituzten zaintzen du.

Suediako^{iv} Berdintasunerako Defentsa Erakundearen jatorria eta bilakaera Norvegiakoaren antzekoak dira; horrela, Berdintasunari buruzko 1979ko Legea onartu ondoren sortu zen, eta sexu-arrazoiengatiko diskriminazioaren defentsa-ibilbide luzeak babesten du. Duela gutxi, Diskriminazioaren Aurkako 2008:567 Lege berria onartzearekin batera (2009ko urtarrilaren 1ean hasi zen indarrean), Defentsa Erakunde horrek beste hainbat diskriminazio-egoeratarazabaldu zituen bere jardun-eremuak, eta beraz, sexu-arrazoiengatikoez gain, etnia-jatorriagatiko, transgeneroagatiko, erlijio edo sinesmenegatiko, desgaitasunagatiko, orientazio sexualagatiko eta adinagatiko diskriminazioak ere jasotzen ditu.

Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Defentsa Erakundearen berregituraketa aldeztu aurretik zeuden 4 agintziak bateratzeko gauzatu zen: Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundea (1980an sortua), Etnia Diskriminazioaren Aurkako Defentsa Erakundea (1986an sortua), Desgaitasunaren alorreko Defentsa Erakundea (1994an sortua), eta Orientazio Sexualagatiko Diskriminazioaren Aurkako Defentsa Erakundea (1999an sortua); horretaz gain, bi tematika berri txertatzen ditu: adina eta transexualitatea (ingelesezko *transgender* jatorrizkoan).

Era berean, **Finlandiak**^v genero-berdintasunerako dituen erakunde-mekanismoak Gizarte Gaietako eta Osasuneko Ministerioari atxikitzen zaizkio, eta lau agintaritza ditu Genero Berdintasuna sustatzeko lanean:

- *Genero Berdintasunerako Kontseiluak* (1972an sortua, Finlandiako erakunde zaharrena da ekitatearen alorrean) alor horretako aholkularitza ematen die Gobernuari eta Parlamentuari. Finlandiako egitura espezifikoa da, parlamentuko alderdi politikoen ordezkariak diren 12 kidek osatzen dute eta Idazkaritza Nagusi batek laguntzen du. Horretaz gain, erakunde



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

feministen elkarteak (UNIONI), genero-gaiak ikertzeko zentroa eta erakunde feministen konfederazioa ordezkatzeko dituzten hainbat aditu daude bertan. Kontseiluaren lana bi arlotan antolatzen da: genero-ekitate eta gizonak; eta generoa eta boterea. Kontseilu horren lanak oso prozesu luzeak deskribatzen dituela egiaztatzen dute.

Gaur egun, Berdintasunaren aldeko Lege berri bat egiteko lanean ari dira, eta generoaz gain, beste alderdi batzuk sartuko ditu Lege horrek: etnia, adina, desgaitasuna, eta abar. Europako joera bat dela diote, nahiz eta Finlandian genero-ekitatearen ardura dutenak ez dauden indarreko ondorengo bi legeak bateratzearekin (aurreikusita dagoen bezala) ados: Berdintasunari buruzko Legea (2004koa, berdintasunari buruzkoa oro har, sustapena bereziki nabarmentzen duena) eta Genero Berdintasunari buruzko Legea (2007koa).

- *Berdintasunerako Defentsa Erakundeak* (Berdintasunari buruzko lehen legea onartzearekin batera 1987an sortua) erakunde independentea da, eta Berdintasunari buruzko Legea betetzen dela kontrolatzeko helburua du. Gobernuak izendatzen du haren titularra (lehen, Errepublikako Presidenteak egiten zuten izendapen hori), 5 urteko iraupen berriztagarriarekin.

Erakunde publikoei zein pribatuei dagokienez, Genero Berdintasunari buruzko Legearen betetze-maila ikuskatzen eta ebaluatzen du Defentsa Erakundeak. Honako hauek dira haren eginkizunak: praktika bat Legearen aurkakoa noiz den ezartzea, kontuan hartuz kasua Justiziaren Berdintasun Batzordera eraman daitekeela; berdintasun-planak betetzen ez badira, epe bat finka dezakete Berdintasun Auzitegira izapidetu baino lehen; lantokiak bisitatzea eta ikuskatzea; eraginkorrak eta sortzaileak diren eta genero-berdintasuna sustatzen duten planak saritzea; hedapen-ekintzak garatzea; herritarrei aholkularitza ematea; salatutako kasuak ikertzea; berezko ekimenez, Berdintasunari Buruzko Legea organo publiko batean aplikatzeko moduari buruzko gomendioak ematea.

Berdintasunaren Legea onartu zenetik (1987) 20 urte igaro ondoren, Defentsa Erakunde horrek oso garatuta dauka sexu-arrazoiengatik diskriminazioari buruzko doktrina, eta tratatu eta epai asko ditu.

- *Genero Berdintasunaren Unitateari* (2001ean sortua) dagokio Gobernuaren genero-berdintasunaren gaineko politikak diseinatzea eta garatzea, Ministerioekin elkarlanean;



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

horretaz gain, honako eskumen hauek ere baditu: genero-ekitatea joera nagusiaren zati dela ziurtatzea; generoaren “mainstreaming” deritzona; alor horri buruzko nazioko legedia prestatzea; genero-berdintasunaren alorreko Europako politikekin eta legediekin lotutako gaiak; eta arlo horretako nazioarteko beste estamentuekin harremanetan egotea: Nazio Batuak, Eskandinaviako Kontseilua, Europako Kontseilua eta abar.

Gobernuak alor horretan dituen Programak honako hauek dira: Genero Berdintasunerako Ekintza Plana eta Soldata Berdintasunari buruzko Programa (hiru alderdiren lankidetzarekin: Gobernua, erakunde patronalak eta sindikatu-erakundeak):

- Halaber, *Berdintasun Auzitegia* auzibidearen alternatiba da, eta Defentsa Erakundearen ebazpenak berrestea eta sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa gauzatzegatiko zehapenak ezartzea ahalbidetzen du. Hurrengo lege-erreformara begira, biktimak konpentsatzea jasotzeko aukera eztabaidatzen ari dira, ezinbestean auzibidera jo beharra ekiditeko.

Azkenik, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean Europan dagoen erregulazioa betez, **Lituaniako** Aukera-berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu zen. 1999an sortu zenez geroztik, sexuagatiko, adinagatiko, desgaitasunagatiko, erlijioagatiko, orientazio sexualagatiko eta arrazagatiko ustezko diskriminazio-egoeretan esku hartzeko agindua du Defentsa Erakunde horrek; bere jardun-esparrua sektore publikoa eta pribatua dira, Parlamentuari atxikita dago, Parlamentuko Defentsa Erakundearen estatus berbera du aitortuta, eta emandako gomendioak betetzen ez diren kasuak zehatzeko ahalmena du.

3. EQUINET, TRATU BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEEN EUROPAKO SAREA^{vi}

Eskandinaviako herrialdeetako eta Lituaniako Defentsa Erakundeak –lehen aipatutakoak–, beste hainbat defentsa-erakunde eta ordezkariarekin batera, prestakuntzak eta jardunbide egokiak elkartrukatzeko erakunde espezifikoa batean antolatu dira; erakunde horri EQUINET deritzo, eta Bruselan du egoitza.

Europako Batzordeak sustatu zuen EQUINET-Berdintasunerako Erakunde Independenteen Europako Sarea 2007an sortzea, berdintasunaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren alorrean Erkidegoan dagoen zuzenbidea interpretatzeko eta modu homogeenan aplikatzeko lanean aurrera egiteko.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

EQUINET sarearen helburu nagusia erakunde publiko independente eta espezializatuen artean eta erakunde horiekin (Europar Batasunak sortu zituen horrelako erakundeak, berdintasunari buruzko Zuzentarauak betez) lankidetzan aritzea da. Europako Batzordearen babespean, adierazitako erakunde horiei beren egitekoa gauzatzen laguntzeko helburua du, jurista adituen txostenak eta aplikazio-estrategiak elkartrukatzeko baliabide bideragarrien sare eta oinarri bat ezarriz, jardunbide egokien prestakuntza eta gardentasuna garatuz eta Europako erakundeekiko elkarrizketarako plataforma bat sortuz.

Urteko Batzar Nagusian 4 Defentsa Erakunde berri onartu ondoren (2009ko azaroaren 5ean eta 6an) –horien artean, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea–, 25 estatu Kidetako eta Norvegiako 33 erakunde –berdintasunaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren alorrekoak– biltzen ditu sare horrek.

Sare horren barruan, nazioartean arrakasta handia duten hainbat erakunde ditugu, besteak beste, Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Defentsa Erakundea (Norvegia), Diskriminazioaren Aurkako Agentzia Federala (Alemania), Diskriminazioaren Aurkako eta Berdintasunaren aldeko Goi Agintaritza (Frantzia), Berdintasunaren eta Giza Eskubideen Batzordea (Britainia Handia), Berdintasunerako eta Diskriminazioaren Aurkako Erakundea (Suedia), Tratu Berdintasunerako Defentsa Erakundea (Austria), Genero Berdintasunerako ordezkaria (Estonia), Berdintasunerako Defentsa Erakundea (Finlandia), eta Berdintasunerako ordezkaria (Ipar Irlanda).

4. EAEn ERAKUNDE INDEPENDENTE BATEN EREDUA IZATEKO PROPOSAMENA: BERDINTASUNERAKO ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO DEFENTSA ERAKUNDEA

Berdintasunerako defendatzaileak Eusko Legebiltzarreko *Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordean* egindako agerraldian (2009ko urriaren 26a) hari egin zitzaion galderari (Berdintasunerako Defentsa Erakundeak zein erakunde-eredu proposatzen duen) erantzun baino lehen, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak hiru urte eta erdiko aldi lortutako esperientziaren (abian jartzen eta herritarrei arreta ematen eman duen denboraldia, hain zuzen ere) eta egindako ibilaldiaren zertzelada batzuk azaltzea egokia dela deritzogu.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

- **EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea abian jartzea**

Berdintasunerako defendatzaile Maite Erro Jauregiren erantzukizuna eta ahaleginak (lehendakariak 2006ko maiatzaren 24an izendatu zuen) Espainiako Estatuko beste ezein Autonomia Erkidegotan erreferentziarik ez duen organo aitzindari hori abian jartzeko jardunetan ardaztu dira.

Agindu hori betez, oinarrizko baliabide instrumentalak garatu dira: tokia lokalizatzea eta egokitzea, ekipamendua, Eusko Jaurlaritzaren sarean konexio informatiko eta telefonikoa izatea, herritarrei arreta emateko zerbitzua sortzea eta protokolizatzea, espedienteak izapidetzeko aplikazio informatiko bat diseinatzea eta garatzea, irudi korporatiboa zehaztea, erakunde-webgunean txertatutako web-orri bat diseinatzea eta argitaratzea (www.euskadi.net/defentsoria), komunikazio-irudia zehaztea, hedapen-euskarriak editatzea, eta abar; horretaz gain, gaur egunean Berdintasunerako Defentsa Erakundea osatzen duen langile taldea txertatu da eta langile horiei prestakuntza eman zaie; 6 langilek osatzen dute Defentsa Erakundea, zehazki, honako hauek: bi aholkulari juridikok, zerbitzu-kudeaketako teknikari batek, goi-mailako kargua duen idazkari batek, berdintasun-aholkulari batek eta defendatzaileak; lanak metatu direnez, administrari laguntzaile baten eta aholkulari juridiko baten kontratazioarekin handiagotu da langile taldea.

Tresnez eta funtsezko giza taldeaz gain, 4/2005 Legeak emandako eginkizunei ere heldu zaie; horrela, koordinaziorako erakunde-mekanismoei, azterlanei, txostenei eta argitalpenei eta herritarrei emandako arretari buruz gauzatutako jardun nagusiak honako hauek izan dira:

Koordinaziorako erakunde-mekanismoak ezartzeari dagokionez, honako hauekin ezarri dira EAEn esparruan: Euskal Herriko Unibertsitatea (2008/01/16), Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea (2008/03/13), Arartekoa (2008/05/21), eta EHUko Udako Ikastaroen Fundazioa (2008 eta 2009); orobat, ezarpen hori lan-agintaritzari –Lan Ikuskatzaitzarekin–, CENDOJ funtsari eta Gasteizko Sindikoari proposatu zaie, eta oraindik ez dute zehaztu.

Halaber, estatu-esparruko beste hainbat erakunderekiko lankidetzaharremanak ezarri dira, eta horien artean nabarmentzekoa da Emakumearen Institutua; sexu-arrazoiengatiko ustezko diskriminazioen eskabideak erakunde horretara bideratzen dira EAEn esparrua gainditzen dutenean. Eskandinaviako herrialdeetako Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundeekin



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

ezarritako harremani esker, horien ibilbidea ezagutu eta hedatu ahal izan dugu, eta baita diskriminazioa aztertzeko zabalagoa den eredu baterantz herrialde horiek gaur egun duten bilakaera ere; generoaz gain, eredu horrek arraza, adina, erlijioa, orientazio sexuala eta desgaitasuna jasotzen ditu.

Ondoren, egindako azterlanak, txostenak eta argitalpenak zerrendatuko ditugu; batetik, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko diskriminazioaren aurkako legedia eta jurisprudentzia aztertzea eta araudiaren betearazpena ebaluatzea izan da horien xedea, eta bestetik, horiek herritarren eta gizarte agenteen artean hedatzea; honako hauek izan dira:

- Eusko Legebiltzarrerako Urteko txostenak, honako denboraldi hauetakoak: 2006ko maiatza-2007ko maiatza, 2007a eta 2008a.
- Ezohiko Txostenak: *“Genero-berdintasuna hitzarmen kolektiboetan”*, *“Elkarte gastronomikoen garrantzia eta gizarte-inpaktua”* (itzultzen), eta *“Genero Aldea EAEn”* (egiten).
- Tratu Berdintasuna Bilduma: *“Emakumeak eta zuzendaritza-postuak: berdintasunaren ameskeria”*, 1. alea, *“Genero-berdintasunaren alorreko lan-eskubideen gida”*, 2. alea, eta *“Hitzarmen kolektiboetako jardunbide egokien gida”*, 3. alea (egiten).
- Euskarri elektronikoa: *“Tratu-berdintasunaren Behatokia”*.
- Nazioarteko Mintegiak: *Europako Genero Berdintasunerako Defentsa Erakundeak*, 2007ko iraila; *Sexu-arrazoiengatiko diskriminazioa eta prozedura juridikoa*, 2008ko iraila; *Krisi ekonomikoa, generoa eta ordainsariak*, 2009ko iraila.
- Webgunean: Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko diskriminazioaren aurkako legediaren eta jurisprudentziaren azterlana (Oinarri Juridikoen atalean); Emandako gomendioak; eta Irizpenak (*“Tratu-berdintasunaren esparru juridikoa elkarte gastronomikoetan”*; *“Laudioko Roke Deunaren Anaidia”*).
- Hedapen-materiala.

- **Herritarrei emandako arretaren bilakaera**

Berdintasunerako Defentsa Erakundeari garatzea dagozkion aholkularitza, ikuskaritza eta oharpen-eskumenak herritarrei eman beharreko arretarekin lotuta daude eta sektore pribatukoak dira, -jazarpen sexistaren kasuan bide gisa balio izateari dagokiona izan ezik-.




DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

Horri dagokionez, sexu-arrazoiengatiko diskriminazioagatiko erreklamazioei erantzuteko prozeduran hainbat eskabide-mota berezi ditu erakunde honek: kontsulta, kexa, salaketa, jazarpen sexistaren kasuan bide gisa balio izatea, laguntza teknikoa eta irizpena; hala ere, kexen eta salaketen kasuan jarraitu beharreko prozedura baino ez du erregulatzen 119/2006 Dekretuak.

Defendatzailea izendatu zuten egunaz geroztik hona, guztira 294 eskabideri erantzun zaie, eta eskabide kopurua urtez urte handitu da: horrela, 2006an 20 aurkeztu ziren, 2007an, berriz, 51, 2008an, 67, eta aurtengo, azkenik, eskabide kopurua (156) % 232,8 handiago da 2008ko ekitaldikoarekin alderatuz.



Eskabide horietako gehienak lan-arlokoak, komunikabideen arlokoak, elkarleen arlokoak, kirol-arlokoak eta zerbitzuen arlokoak dira.

Eskabide horien kasuan, sexu-arrazoiengatiko ustezko diskriminazioa honako hauekin lotuta dago batik bat: lanetik kaleratzea, amatasuna eta lana, emakumeak sartzen ez uztea (lanpostu batean edota elkarteren batean), publizitatea, familia-bizitza eta lan-arloko eta norberaren bizitza bateragarri egitea, jazarpen sexista eta hainbat araudi.

Azkenik, egindako azterlanak prozesu konplexuak dira, eta ikuskatzeaz, dokumentu-azterketaz eta ikerketa soziojuridikoaz gain, proposa daitezkeen gomendioen bideragarritasuna oinarrituko eta ahalbidetuko duten alternatiben azterketa dakarte.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

- **Tratu-berdintasunaren alorrean bermea eskainiko duen erakundearen eredia proposatzea**

Erkidegoko zuzenbidean, EAEko Berdintasunerako Defentsa Erakundearen erregulazioan atzemandako gabezietan, Europar Batasuneko tratu-berdintasunetako erakunde independenteen –horretarako lotesleak diren Zuzentarauak betez sortuak– ezagutzan eta diskriminazioaren eta tratu-berdintasuna izateko funtsezko eskubidea urratzearen problematikan oinarrituta, ondoren adierazitako kontsiderazioak proposatzen ditugu Eusko Jaurlaritzak irekitako hausnarketa-fasean (tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako erakunde horiei buruz Europako Batzordea egiten ari den azterlanaren bitartez egin daitezkeen ekarpenak alde batera utzi gabe), egungo egitura hobetzeko eta aldi berean, tratu-berdintasunerako eskubidea bermatuko duen eredu bat sortu ahal izateko.

1) *Ezaugarriak jardun-esparruari dagokionez: publikoa eta pribatua*

Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren gaur egungo bereizketa gainditzea herritarrei berdintasun-eskubideari buruzko aholkularitza ematerakoan, ustezko diskriminazioa ikertzeko prozedurak gauzatzea eta diskriminazio-egoerak edo -praktikak konpontzeko gomendioak zuzentzea edota adiskidetze-neurriak eskaintzea.

Horrek guztiak, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean erreferentziazko berme-erakundeari buruzko ezagutza handiagoa ekarri behar die herritarrei ezinbestean. Orobat, horri esker, diskriminaziorik buruz egindako txosten independenteek gizarte-errealitatearen irudi osoagoa eskainiko dute, erakundearen espezializazioari erantzungo diona (eta ez sektore bati), eta horretaz gain, gai horren gainean erakundeak duen doktrinaren garapena ahalbidetuko duena.

Adierazi dugun bezala, Europako Batasunean berdintasunerako erakundeetako ezeinek ez ditu bere eskumenak sektore pribatura mugatu, eta horrek ez du inolako gatazkarik eragin Giza Eskubideen ordezkariekin.

2) *Ezaugarriak diskriminazio-arrazoiei, 6 arrazoiei eta izenari dagokienez*

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundearen jardun-arrazoiak areagotzea aintzat hartzea, diskriminazio-kasuetan edota tratu-berdintasunerako funtsezko



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

eskubidea –Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua bitartez emana– urratzearen kasuetan berme-erakunde bilakatuz, eta 2000/43/EE Zuzentarauan ezarritakoa eta *pertsonen tratu-berdintasunari (horien erlijioa, sinesmenak, desgaitasuna, adina, orientazio sexuala edo generoa alde batera utzita)* buruzko Europako etorkizuneko Zuzentarauan aurreikusitakoa txertatuz.

Berdintasunerako Defentsa Erakundearen eskumena 6 diskriminazio-arrazoitara erregulatzea, hots, generora, erlijio edo sinesmenetara, desgaitasunera, adinera, etniara eta orientazio sexualera, adierazitako zuzentaruaren egungo zirriborroak aldarrikatzen duenarekin koherentean da, eta baita Europako estatuetako egungo joerarekin ere

Agindu horiei erantzuten dien erakunde baten izen koherentea honako hau litzakete:
Berdintasunerako eta Diskriminaziorik Ezerako Defentsa Erakundea.

3) Legebiltzarrerara atxikitzea, Ombud deritzonak edo Parlamentuko ordezkariak duen tratamendu berbera esleituz

Europako Zuzentaruetan adierazten denez, diskriminazioagatik laguntza emateko eta azterlanak eta txostenak egiteko independentziak nabarmen aldatzen du Europar Batasuneko panorama, tratu-berdintasunerako erakunde independenteei dagokienez. Horregatik, EQUINET sareak gai hori aztertu du, eta hausnarketa-aldi honetan kontuan hartu beharreko duela gutxiko azterlan batean aurkeztu du^{vii}.

Diskriminazioari buruz egindako txostenen defentsa, gomendioak, aholkularitza, azterlanak eta txostenak (independentzia hierarkikoa barne) independenteak izango direla (inolako jarraibideak ez jasotzeko) argituta geratzen dela dirudi eskubideak bermatzen dituen erakunde publiko bat Parlamentuari atxikita dagoenean.

Zenbait herrialderen kasuan –finkapen demokratiko handiagokoak eta ibilbide luzeagoko Defentsa Erakundeak dituztenak– erakunde horiek gobernuaren administrazio-egiturari atxikita badaude ere, eta Legez alor horretako eskumena duten erakundeak direla ezartzen bada ere (horrelako kasuetan, Herriaren Defentsako Erakundeak igortzen die diskriminazioko kasuistika espezifikoak), demokrazia berriagoa duten beste zenbait estatuk Defentsa Erakundeen independentzia Parlamentuari atxikiz bermatzea erabaki dute, esate baterako, Lituaniak.



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

4) *Eta berezko legeak erregulatua*

Arestian azaldutako elementuak kontuan hartuz, hots, Defentsa Erakundearen eskumenak sektore publikora eta pribatura zabaltzea, beste hainbat diskriminazio-arrazoi, Defentsa Erakundearen independentzia bermatzea eta haren erregulazioaren gabeziak, berezko lege baten bitarteko erregulazioak hainbat gai garatzea ahalbidetuko luke, hala nola, adiskidetzeneurrien kasuan, Defentsa Erakundeak bere eginkizunak betetzeko prozedurak, irizpenak ematea, laguntza ematea edota bide gisa balio izatea, emandako gomendioak kontuan hartu ez dituelako pertsona batek goragoko instantzietara jotzea erabakitzen duen kasuan, pertsona horri laguntza teknikoa ematea, eta berdintasunerako Europako beste erakunde-mekanismoekiko edo tratu-berdintasunerako erakundeekiko elkarrizketa; horri guztia berezko Lege baten bitartez erabat erregulatu beharko da.

Indarreko legediari, Euskadiko Autonomia Erkidegoko eskumenei, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren alorrean Europan dauden Zuzentarauei eta nazioarteko gainerako araudi lotesleei erantzun beharko die berezko Lege horrek, eta horretaz gain, tratu-berdintasunaren eta diskriminazioaren aurkako borrokaren alorrean bere espezializazioa zehaztuko beharko du, eta bere prozedurak, eskubideak bermatzeko (batez ere berdintasunerako eskubidea) beste erakunde-mekanismoekiko elkarrizketa eta independentea izateko beharrezko bermeak finkatu beharko ditu.

MAITE ERRO JAUREGI

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defendatzailea



DEFENSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

ERREFERENTZIAK

ⁱ Europako Zuzentarau lotesleak

1975

Kontseiluaren 75/117/EEE Zuzentaraua, 1975eko otsailaren 10ekoa, aipatutako Estatu kideetako legediak gizon eta emakume langileen ordainsari-berdintasunaren printzipioaren aplikaziora hurbiltzeari buruzkoa (L 45 Egunkari Ofiziala, 1975-02-19).

1976

Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaraua, 1976ko otsailaren 9koa, enplegua lortzeari, prestakuntzari eta sustapen profesionalei eta lan-baldintzei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa (L 39 Egunkari Ofiziala, 1976-02-14).

1979

Kontseiluaren 79/7/EEE Zuzentaraua, 1978ko abenduaren 19koa, gizarte-segurantzari dagokionez, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa progresiboki aplikatzeari buruzkoa (L 6 Egunkari Ofiziala, 1979-01-10).

1986

Kontseiluaren 86/378/EEE Zuzentaraua, 1986ko uztailaren 24koa, gizarte-segurantzaren erregimen profesionaletan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa (L 225 Egunkari Ofiziala, 1986-08-12).

Kontseiluaren 86/613/EEE Zuzentaraua, 1986ko abenduaren 11koa, jarduera autonomoak – nekazaritza-jarduerak barne– gauzatzen dituzten gizon eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari eta amatasuna babesteari buruzkoa (L 359 Egunkari Ofiziala, 1986-12-19).

1989

Kontseiluaren 89/552/EEE Zuzentaraua, 1989ko urriaren 3koa, Estatu kideen erregelamendu-eta administrazio-arloko legezko xedapen jakin batzuk koordinatzeari buruzkoa, Telebistako irratidufusioko jardueretan aritzeari dagokionez (L 298 Egunkari Ofiziala, 1989-10-17).



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

1992

Kontseiluaren 92/85/EEE Zuzentaraua, 1992ko urriaren 19koa, lanean haurdun dagoen, erditu den edo edoskitzealdian dagoen langilearen segurtasuna eta osasuna lanean hobetzea sustatzeko neurriak aplikatzeari buruzkoa (L 348 Egunkari Ofiziala, 1992-11-28).

1996

Kontseiluaren 96/97/EEE Zuzentaraua, 1996ko abenduaren 20koa, gizarte-segurantzaren erregimen profesionaletan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa aplikatzeari buruzkoa (L 46 Egunkari Ofiziala, 1997-12-17).

1997

Kontseiluaren 97/80/EEE Zuzentaraua, 1997ko abenduaren 15ekoa, sexu-arrazoiengatiko diskriminazioko kasuetako frogen kargari buruzkoa (L 14 Egunkari Ofiziala, 1998-01-20).

2000

Batzordearen Erabakia (2000/407 EE), 2000ko ekainaren 19koa, Batzordeak berak sortutako komiteetako eta aditu-taldeetako gizonen eta emakumeen arteko orekari buruzkoa (L 154 Egunkari Ofiziala, 2000-06-27).

2002

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/73/EEE Zuzentaraua, 2002ko irailaren 23koa, enplegua lortzeari, prestakuntzari eta sustapen profesionalei eta lan-baldintzei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzko Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaraua aldatzen duena (L 269 Egunkari Ofiziala, 2002-10-05).

2004

Kontseiluaren 2004/113/EE Zuzentaraua, 2004ko abenduaren 13koa, ondasunak eta zerbitzuak eta horien hornidura lortzean gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeko dena (L 373 Egunkari Ofiziala, 2004-12-21).



DEFENTSORIA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako
Para la Igualdad de Mujeres y Hombres

2006

Europako Parlamentuaren 2006/54/EE Zuzentaraua, 2006ko uztailaren 5ekoa, enpleguari eta okupazioari lotutako gaiei dagokienez, emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa aplikatzeari buruzkoa (bat egitea) (L 204 Egunkari Ofiziala, 2006-07-26). Kontseiluaren 75/117/EEE Zuzentaraua, Kontseiluaren 76/207/EEE Zuzentaraua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002/73/EE Zuzentaraua, Kontseiluaren 86/378/EEE Zuzentaraua, Kontseiluaren 96/97/EE Zuzentaraua, Kontseiluaren 97/80/EE Zuzentaraua eta Kontseiluaren 98/52/EE Zuzentaraua elkartzen ditu, eta aurreikusten duenez, 2009ko abuztutik aurrera izango du eragina haren indargabetzeak.

ⁱⁱ <http://www.weforum.org/en/Communities/Women%20Leaders%20and%20Gender%20Parity/GenderGapNetwork/index.htm>

ⁱⁱⁱ "EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak eta Eusko Legebiltzarreko Emakumearen eta Gazteriaren Batzordeak Norvegiako eta Finlandiako Defentsa Erakundeetara egindako bisitaldiri buruzko txostenean" jasotako informazioa. 2008ko apirilaren 14a-17a.

^{iv} EQUINET-en webgunetik ateratako informazioa: www.equineteurope.org/403.html

^v 3. erreferentziaren berdina.

^{vi} EQUINET sarearen webgunean jasotako informazioa: www.equineteurope.org

^{vii} EQUINET. European Network of Equality Bodies. *"Between impartiality and responsiveness. Equality Bodies and Practices of Independence"*. Equinet, Brussels 2008.